



Euskaraldiak badu hamaikakoa, bi udalerrietan

Aurreko astean aurkeztu zituzten Andoaingo eta Urrietako hamaikakoak. Bi udalerrietan maiatzerako hitzordu-sorta antolatzen ari dira. / 2-3

Memoria historikoarekin hitzordua

Oroituz, Andoainen elkarteak antolatuta, 1936an fusilatutako herrikideak gogoan hartuko dituzte Etxeberrieta auzoko Alfaro parkean. / 16




Urrieta KE klubeko lehen taldeak bostetik bost garaipen lortu ditu, Kopan / 10



Ander Setien Euskaldunako Gorengo mailako taldeko kapitainari elkarrizketa / 11

Aste Santua eta turismoa hizpide, Urrietako HK10 Hoteleko Maite Alkain zuzendariarekin / 5

"Ez zaitugu bakarrik utziko!", Palestinaren aldeko elkartasun eguneko aldarrikapena Andoainen / 3



Datorren Aiurri astekaria Apirilak 25, ostirala

Bitartean, albisteak, Aiurri.eus webgunean

Atal ugari:

- Argazki-bildumak
- Bideoak
- Agenda

Kanal bereziak:

- Euskaraldia
- Saretzen
- Komunitatea

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaituzte aiurrikide

IRITZIA

JARDUN KOORDINAKUNDEA GIPUZKOA

Aberri Egunean parte hartzeko deia luzatzen diogu langileriari

Banaketa da Frantziako eta Espainiako estatuek Euskal Herri Langilearen aurka darabilten elementu estrategikoa. Hori era argian gauzatzen da lurraldetasunari eta administrazioari dagokienez, kulturen eta hizkuntzan isla argia edukiz. Azken helburua, asimilazioa xede, Euskal Herriaren izana eta izatea ukatzea dutelarik.

Baina banaketa ez da estatuen strategiari mugatzen. Honetaz dihardugunean, burgesiaren arma eta taktikaz ari gara, langileon artean banaketa sortzera bideratutakoaz, alegia. Beren uniformatuen zuzeneko jazarpena beharrean, gorrotoa eta beldurra dira egun berreroak langileon bihotzetan izua nagusitu, elkartasuna deuseztatu eta, azken finean, langileon arteko batasuna arrakalaz josteko baliatzen ari diren tresnak.

Horrela, nazioartean gerra sustatzen duten bitartean, migrazioa aurkezten dute arazo gisa. Hainbat langile kale gorrian utziz hauek etxegabetzen dituzten bitartean, okupazioa ei da arazoa. Arrazakeriaren errotzea gero eta ageriagokoa den uanean, kriminalitate eta honi aurre egiteko neurriez mintzatzen dira, faxismoa burgesiak beti eskura baliatzeko gertu duen tresna baita, sistema kapitalistaren berezko fenomeno delarik. Burgesiak bere nagusitasuna kolokan ikusten duenean edota krisi garaietan ederto baliatzen duena.

Eta garbi eduki iruzurra, gezurra eta aurreiritziak lagun dituela faxismoak. Langileon arteko banaketak eta liskarrak sortuta, honen potentzialitate iraultzailea indargabetu, eta, aldi berean, burgesiaren ekimenak eta bere proiektu politikoa



Apirilaren 4an Buruntzako tontorrean bi banderak jarri zituztela baieztatu du Jardun koordinakundeak. AIURRI

babestera bideratutako posizionamendu eta praktikak sustatzen dituzte. Era horretan, naziotasuna, hizkuntza, kultura langile klasearen berezko ezaugarriak izatetik bazterketa eta banaketarako tresna bilakatu nahi ditu burgesiak, Euskal Herria eta bere ideia bera euren mesedepan desitxuratzeko punturaino.

Baina hamaika dira Euskal Herriaren koloreak, hainbat bere errealitate eta aurpegiak, ez baita sorlekua batzen edota definitzen gaituena, esplotatutako klase eta zapaldutako nazio baten parte izatea baizik. Miseriara kondanatuta kapitalaren atzaparretan bizirauteko haundi-maundien menpe dauden langileez osatua baita Euskal Herri Langilea. Eta, hain zuzen ere, klasea da honen batasunaren elementua, Euskal Herriaz ari garenean Euskal Herriko langileon aberriaz ari baikara, klase eta nazio baten askapenerako bidean

beharrezkoa den proiektu politikoaren gauzapez, alegia.

Hori da, hain zuzen ere, Aberri Egunean garbi utzi eta ozen aldarrikatu beharreko mezua, burgesia bidelagun izatea proposatzen duten planteamenduak honen uanean uneko kapritxo eta beharizanen menpe baitaude. Jabeen azken helburua ez baita inoiz izango askatasuna, beren mozkin eta nagusitasunari eustea baizik.

Gauzak horrela, JARDUN koordinadoratik apirilaren 20an Euskal Herri Langileari batu eta Gernikan egingo den Aberri Egunean parte hartzeko deia luzatzen diogu. Independentzia eta sozialismoaren bidean, langileon antolakuntza salaberrezko baldintza suertatzen baita, Aberri Eguna bide horretan Euskal Herriko langileon elkargune izateko tresna delarik.

Apirilaren 20an, denok Gernikara! Euskal Herri Langilea batu!

POSTONTZIA

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA EUSKAL HERRIA

Renfen ere euskaraz, oztoporik eta erasorik gabe

Tolosako tren-geltokian izandako gertakari lazgarriaren berri izan genuen orain gutxi Euskal Herriaren Euskaraz elkartearen bidez: bidaiari batek, EHEko kidea, salatu zuen Renfe Aldirien segurtasun-zerbitzuko langile batek bortitz eraso egin ziola, azken horrek euskaraz egin zieziaion eskatu ostean. Kasua larria izan da eta beharrezkoa da neurriak lehenbailehen hartzea, euskaldunok Renfek eskaintzen dituen Aldiriko tren-zerbitzuetan gure eskubideak bermatzeko: euskaraz egitea eta arreta euskaraz jasotzea. Onartezina da euskarazko arreta ukatzea edo euskaraz egitea oztopatzea, eta erabat onartezina da euskaraz egiteagatik indarkeria pairatzea. Euskaldunok euskaraz bizi nahi dugu, baita Renferen zerbitzuak erabiltzen ditugunean ere. Ohikoa izaten da Renferen zerbitzuetan euskara baztertzea, oharrak erdara hutsean idatzita egotea edo euskara traketsen egotea, langileekin euskaraz egin ezin izatea, etab., baina bada garaia egoera aldatzeko, eskubide osoa dugu zerbitzua euskaraz erabiltzeko eta administrazioek hori bermatu behar digute.

Renfe enpresa publikoa da; ondorioz, euskaldunon eskubideak bermatu behar ditu. Halaber, Renfek kontratatzen dituen gainontzeko zerbitzuek eta langileek ere aipatu eskubideak bermatu behar dituzte. Bide batez, Aldiriko zerbitzua transferituta dago (transferentzia erabat gauzatu zen aurtengo urtarrilaren 1ean), hortaz, Eusko Jaurlaritzak eskumena dauka, besteak beste, zerbitzua arautzeko eta kontrolatzeko, baita ikuskatzeko ere, eta ezin du ezikusiarrena egin.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriko sailburuari eskatu diogu Renfe Aldiriko zerbitzu guztietan bidaiarion hizkuntza-eskubideak bermatzea, horretarako, beharrezko neurriak hartzeko. Eusko Jaurlaritzak ezin ditu eskubide-urraketak onartu, are gehiago, berari dagokio eskubideak bermatzea, eta horixe egitea espero dugu.

KOMUNITATEA

AITA LARRAMENDI IKASTOLA ANDOAIN

Batxilergoko lehenengo mailako elkartrukea

Batxilergoko lehen mailako ikasleek, beste behin ere, Alemaniara bidaiatzeko eta bertako kultura, ohiturak eta familiak ezagutzeko aukera izan dute elkartruke programaren bidez.

Martxoaren 6an abiatu eta martxoaren 14an itzuli ziren, esperientzia paregabeak eta oroitzapen ugari artean zituztela. Bidaian zehar, Paderborn, Werther eta Bielefeld hiriak bisitatu zituzten, eta etxera bidean, Ganten geldialditxo bat ere egin zuten.

Ingelesa praktikatzeko aukera izateaz gain, harreman berriak sortu eta bizipen aberasgarriak izan dituzte. Zalantzarik gabe, elkartruke esperientzia baliotsua izan da. Egunotan, elkartruke honen bigarren fasea iritsi gara, eta emozioz beterik gaude! Alemaniako ikasleak martxoaren 28an iritsi ziren gure artera, eta aste batez gurekin egon ziren, esperientzia ahaztezina bizitzeko prest!



Mosaikoa egin zuten larunbat eguerdian. Irudia airetik hartuta dago. AIURRI



Ehundik gora lagun elkartu zen mosaikoa egiteko. AIURRI



Tailerrak eta azoka antolatu zituzten Juanita Alkain plazatxoan. AIURRI

"Ez zaitugu bakarrik utziko!"

Palestinako herritarren aldeko Elkartasun Eguna egin zuten Juanita Alkain plazan, aurreko larunbatean, Andoain-Palestina ekimenak antolatuta. Mosaikoa egiteko aukera baliatu zuten, palestinareei bakarrik ez daudela gogorarazteko

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurreko astean Palestinari elkartasuna adierazteko hitzordu bikoitza antolatu zuten Andoainen. Apirilaren 2an, asteazkenarekin, Txente Rekondo nazioarteko adituak Palestinaren egorraz hitzaldia eman zuten Urigain Kultura Etxean. Arreta handiz jarraitu zituzten Rekondoren esanak hara hurbildu zirenek. Egun gutxira, larunbatean, goiz osoko elkartasun jardunaldia antolatu zuten Juanita Alkain plazatxoan. Tailerrak, azoka eta

aldarrikapen mezuak uztartu zituzten bertan. Adierazpena irakurri zuten ekitaldiaren amaiera aldera: "Begi guztiak Palestinan ditugu eta hemendik, Andoaindik, Euskal Herritik, mundu osoan bidegabekeria eta izugarrikeria horren aurka ari den aldarriarekin bat egiten dugu. Palestinako herriaren eskubide legitimoekin bat eginez, hemen bildu garen euskal herritarrok ere adierazten dugu ez dugula onartuko Palestinako herriaren errekonozimendua eta Israelen

okupazioaren amaiera ez den beste soluziorik. Eta irmo adierazten dugu, behar den guztietan jarraituko dugula salatzen Israelen bihotz gabeko gerra politika sionista genozida eta berarekin bat egiten duen ororen konplizitatea. Euskal Herritar guzietan dei egiten diegu mobilizazioei adi egoteko. Ez kentzeko begirada Palestinatik. Jarraitzeko hemendik salatzen eta konponbidearen aldeko bidea zabaltzen. Palestina, zurekin gaude! Ez zaitugu inoiz bakarrik utziko!"




Magrebiar jakiak dastatzeko aukera izan zen azokan. AIURRI

Elkartasun ekimena, Andoainen



MARYAMA TALEB

"Azoka solidarioa antolatu dugu Palestinari elkartasuna adierazteko: Algeriako, Marokoko eta Mauritaniako emakumeek jakiak antolatu dituzte eta, bestalde, tailerrak antolatu ditugu haurrentzat".



ARIXEN CARRERO

"Pultserak, belarritakoak, imanak, kuadernoak, lepokoak, poltsak, pinak, banderolak... Horietako batzuk neronek egin ditut eskuz. Bertan ateratako dirua Palestinara bidaliko dugu".

KOMUNITATEA

ERRIGORA EUSKAL HERRIA

Inoizko produktu gehien banatu da aurtengo kanpainan

Martxoaren 10etik 26ra arte iraun duen Eskutik Eskura kanpainak inoizko harrerarik onena izan du. Errigoratik Euskal Herriko txoko guztietara banatuko ditugu kanpainan eskatutako produktuak Aste Santu ondotik hasi eta maiatz bukaera bitartean. Azpimarratzekoa da zazpi lurraldeetan egin duela gora eskariak, osotara 145.500 litro olio eta 30.700 lote baino gehiago eskatu dituzte ia 10.700 eskaeretan. Iazko kanpainarekin alderatuz orotara 974 eskaerako igoera eman da, eta produktuei dagokienez, 17.530 litro oliba-olio birgina estra eta 4.655 lote gehiago banatuko ditugu aurtengoan.

Emaizta horien berri izaten lehenak Errigorako sarekideak izan ziren, aurreko larunbatean Mendigorrian Hazialdeko elkarteko ekoizleak ezagutzeko egin genuen ateraldian. Bertan, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko zubiak sortzen jarraitzeaz

gain, azken asteetan burututako auzolana eta horrek emandako emaitzak ospatzeko tartea hartu genuen.

2025eko Eskutik Eskura kanpainak emandakoak jauzi berri bat suposatu du Errigorarentzat, kontsumitzaile arduratsua gehiagok proiektura batzeko asmoa erakutsi dutelako. Errigoraren komunitatea urtetik urtera gehiago zabaltzen ari denaren erakusgarri dira kanpaina honen emaitzak. Kanpaina azpimarratu genuen kontsumitzaile arduratsuen sarea haundiago eginez, “beste modu” hau indartzearekin batera, norbanako nahiz kolektiboari onurak ematen dizkiogula.

Kanpaina honek eman dituen emaitzei esker aurrera begira ere bitartekari espekulatzailerik gabeko eredu indartzen jarraituko dugu Errigoran, eta kontsumitzaile zein ekoizleen beharrak erdigunean paratuko dituen eredu bat



Zazpi lurraldeetan egin du gora eskariak, Errigorak adierazi duenez. ERRIGORA

eratu. Bide horretan, kontsumitzaileok ekoizpenean eragiteko gaitasun gehiago biltzen jarraituko dugu, eta era berean, Nafarroa erdi eta hegoaldeko ekoizpena indartu eta babestuko dugu.

“Beste modura” kontsumitzeko eta ekoizteko

bidea, ordea, ez da kanpainarekin batera amaitu. Errigoran urte osoko lanketa egiten baitugu alternatiba hori hezur-mamitzeko: ekoizpenean eraginez, euskara sustatuz, sarea indartuz, ondoko kanpainak prestatzen, jantoki kolektiboekin

lanketak eginez, epe-luzerako erronkak identifikatzen...

Etengabeko lanketan ari gara proiektuan, anbizioz eta ilusioz aipaturiko eta ilusioz aipaturiko hiru helburuetara gerturatzeko lanean: elikadura burujabetza, euskara eta auzolana.

Su-artean, gure-artean: Ramadan amaierako ospakizuna

Ekimena Andoaingo elkarte gastronomikoetan egiten da eta, azkena, Batzokian izan zen. Azken bi urteotan gertatu bezala, jendetza elkartzen da otorduaren bueltan egiten den bilkuran. Ramadana amaituta, afari goxoa prestatu zuten. Honatx, menua: txahal eta barazki kuskusa (Mauritania), Kunafa opilak (Maroko), taloak (Euskal Herria) eta Saharako eta Marokoko tea. Hango eta bertako musika doinuekin biribildu zen hitzordua.



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hemen da Aste Santua, eta, egunotan, etxetik kanpora joateko joera du jendeak. Sasoi ona, beraz, hotelarentzat?

Bai, bai, gainera, aurten, oso berandu dator Aste Santua. Hortaz, eguraldi hobea egingo du eta Donostia aldera gerturatuko da jendea. Apirilean sartuta, ez dugu lehiarik neguko kirolekin, ia guztia itxita baitago. Horregatik, oso garai ona izango dela uste dut.

Aste Santua amaituta, jarraian dator maiatz hasierako zubia. Zuen kalterako edo mesederako da bi oporraldi horren jarraian izatea?

Guretzat hobea izaten da pixka bat bananduago egotea, azkenean, ez da denerako iristen. Hori ere nabari da, batez ere, Pazko Astean izan dugu jaitsiera, maiatzeko zubiagatik. Gainera, langile asko jasotzen ditugu hotelean eta aste horretan ez dira etortzen normalean. Dena dela, konfiantza daukagu azken orduko erreserbetan eta pentsatzen dut, eguraldiaren arabera, gehiago edo gutxiago izango direla.

Oso hitzordu inportanteari ekin zaio berriki, Euskal Herriko Itzuliari. Tropeleko kideak hartu al dituzte aurten?

Hartu izan ditugu, bai. Aurten ez dugu txirrindularirik izango, badirudi-eta Euskal Herriko beste punturen batean egingo dutela egonaldia. Teknikariak baditugu, ordea, asteartean sartu ziren. Jende asko mugitzen dute horrelako ekimenek, bai Euskal Herrian egiten direnak, bai Donostian eta bai Urnietan. Horrelako hitzorduak beti dira onak guretzat.

Aste Santuan, nongoa da zuenean ostatu hartuko duen jendea?

Realeko nazioarteko txapelketa baten harira, bi futbol-talde etorriko dira, baina, batez ere, familiak izan ohi ditugu, Euskal Herri kanpotik etorritakoak. Donostia ezagutu nahi dute, baina, bertan lo egitea oso garestia dela jakitun, kanpoalderantz joaten dira. Garaiotan, gau bakarreko edo bi gaueko erreserbak egiten dituzte. Udan, egonaldi luzeagoak izaten ditugu.

Zein turismo-mota gailentzen da zuen bisitarien artean?

Pintxoak jatera etortzen da jendea, Donostia ezagutzera. Gipuzkoako kostalderantz ere jotzen dute turistek, Hondarribia, Pasaiá, Zarautz, Getaria... Jendea

“Turismo gastronomikoa da nagusi, oraindik”

MAITE ALKAIN URNIETAKO HK10 HOTELEKO ZUZENDARIA

Ate-joka dira Aste Santua eta maiatza hasierako zubia. Bada, inguruak ezagutzeko asmoz gerturatu ohi diren bisitariak jasotzeko prest da HK10 hotela



Maite Alkain, hotelaren sarrera nagusian. AIURRI

barrualdera bideratzen ahalegintzen gara: geroz eta jende gehiago erakartzen dute, adibidez, Leitzarango bide berdeek eta horietako asko atzerritarrak dira. Izan ere, asko hazi da bizikletaren bueltako turismoa, baita naturarekin erlazionatutako turismoa ere. Baina, beno, pixkanaka, turismoa gastronomikoa baita nagusi, oraindik, Donostiak duen erakarpenagatik. **Bestelako gomendio berezirik luzatzen al diezue zuen bezeroei, bisitatu beharreko tokiei dagokionez?**

Azoketara bideratzen ditugu, larunbatetan, Tolosakora edo, asteazkenetan, Ordiziakora. Lehengo igandean, esaterako, Adarrazpira bidali genituen bisitari batzuk, tokiko produktuak erostera. Mendi aldera joateko gomendioak ematen dizkiegu.

Geroz eta ohikoagoa da urte osoan Donostian turistak ikustea. Zuen erreserbetan ere nabari al da bisitarien fluxu egonkorra, hotela hiriburutik oso gertu kokatuta dagoela kontuan hartuta?

Ñabardura txikia egin beharra dago. Egia da denboraldia luza-tu dela, baina ez da horrenbeste jende egon, adibidez, Behobia-Donostia lasterketa izan zenetik martxora arte, Aste Santua berandu samar egokitu baita. Geroz eta hotel zein pisu gehiago daude Donostian; orduan, nahiz eta turismoa handitu, bisitariak gehiago banatzen dira hiriburuan bertan. Halere, oso urte onak izaten ari dira.

Bestalde, sasoi honetan, lan handia izaten dugu, txotx-denboraldia dela eta. Asteburuak sagardotegietara etorri den jendearekin bete ditugu ia.

Interesa duenak nola egin dezake HK10ean erreserba egiteko?

Beti gomendatzen dugu erreserbak zuzenki hotelarekin egitea. Badakit interneten atari pila dagoela, eta oso erraza dela bertan erreserba egitea, baina gurekin eginez gero, komunikazioa zuzenagoa da. Egunero 24 orduz daukagu zabalik gure web orrialdea eta telefono-zerbitzua ere egun osoan dugu eskura, bezeroak artatzeko.

"ASTEBURUAK SAGARDOTEGIETARA ETORRI DEN JENDEAREKIN BETE DITUGU IA"



Pablo Barrutia, patatak zurrizten, Buruntzako sukaldean. BURUNTZA



Pablo Barrutia eta Miren Argi Weill Kaletxikiko bezeroekin, kalean prestatutako afari batean. Uda partean ohitura zuten halako bilkurak egitea. BURUNTZA

Oroitzapen onen Buruntza, gogoan

Pablo Barrutia Ponce zendu zela urtea betetzera doa laster, iazko apirilaren 26an hil baitzen. Miren Argi Weill eta biek hamarkadetan gidatu zuten Buruntza taberna-jatetxea makina bat pertsonen gogoan geratu den leku kuttun horietakoa da

Xabier Lasa ANDOAIN

Pablo Barrutia iazko apirilaren 26an hil zen, eta ezinbestekoa da emazte eta lankide izan zuten Miren Argi Weill-eri harengatik galdetzea: “Ezagutu zuen edonork aitortuko dizu oso pertsona eskuzabala zela, ongilea, jendar-tekoa, sukaldaritza maite zuena, bezeroak sukaldara sartzera ere gonbidatzen zituen horietakoa zela”.

Weillek aitortzen duenez, pertsona ugari dira kalean topo eginez gero hasten zaizkionak kontu-kontari, Buruntza taberna-jatetxea aipatze hutsak ekar-tzen dizkien oroitzapen gozoekin lotuta. Izan ere, bertako produktuekin landutako sukalde tradizionalagatik nabarmendu izan zen betidanik Buruntza, eta horrexegatik zen hain estimatua. Dena esatera, arrazoi horri, bigarren bat erantsi beharko ge-

nioke, sarrerako atea gainditu orduko bertan jaso ohi zen tratu gozoa, alegia. “Igual ez dago ondo neuk esatea, baina bezeroek asko maite gintuzten, eta Buruntzara etortzen zirenean, beren etxean baleude bezala sentitzen ziren; hala senti zitezten saiatzen ginen”.

Berez, Buruntza jatetxea Pablo Barrutia eta Pepi Urretabizkaiak ireki zuten 80ko hamarkadaren hasieran. Ondorengo urteetan, Barrutiak eta Weillek eman zioten jarraipena. Biak ziren sukaldariak, eta tabernan zein jangelan bezeroei zerbitzatzen, berriz, Weill bera, eta Karmele Telleria, Mode Murillo eta Joxetxo Izagirre aritzen ziren.

Ateak beti zabalik zituen taberna-jatetxea

Urteko egun guztietan irekita eduki ohi zuten Buruntza. “Inoiz

ez ixteko moldatzen ginen, eta oporrak hartzeko ere ia ez genuen denborarik hartzen”. Negoziora erabat lotutako bizimodu hori nekeza eta eraman ezina irudituko zaio bati baino gehiagori, baina ezezkoa dio Weillek: “Egia da ordu asko eta asko sartu izan ditugula Buruntzan, kalera paseatzera ateratzeko ere kasik denborarik ez edukitzeraino; Pablo beti barruan geratu ohi zen, eta neu familiak arduratzeko edo enkarguak egiteko bakarrik ateratzen nintzen kalera. Nolanahi ere, negozioarekin eta bezeroekin sentitzen genuen konpromisoak erabat lotu gintuen hara. Argi dago bezeroek esker-tu ez baligute konpromiso hori, ez genuela iraungo urtetan bizimodu horrekin”.

Ateak eguneko ia ordu gehienetan zabalik edukitze hori Kaletxikiko jaietan areagotu egiten

zela sekula baino gehiago, aipatu du adibidetzat Weillek. “Jai batzordea txosna jartzen hasi zen arte behintzat, ez genuen atekak ixteko ohiturarik eduki, festak hasi eta bukatzen ziren bitartean. Auzoko festa handiak ziren, jendeak festa-giroa luzatu nahi izaten zuten ordu txikietan barrena, eta ahaleginak merezi zuela iruditzen zitzaigun, nekagarria gertatu arren”.

Familia-giroko taberna-jatetxea izan zedin ahalegindu ziren hamarkadetan, eta, horri esker, Kaletxikiko auzoari eta Andoaingo herriari egin zien ekarpena ez zela gutxi izan adierazi du Weillek. “Izan Udala, izan herriko era guztietako elkarteak, izan kuadrillak, izan familiak... Guregana konfiantzarekin etorri ohi ziren holako edo halako eskaera eginez, jakinda ahaleginduko ginela moldatzen. Haurren urtebetetze festak, jaunartzeak, senar-emazteen urteurrenak, kintoen bazkariak, Rock Jaialdira etorri ohi ziren atzerriko musikariak... Harrera goxoa eta zerbitzu egokia eskaintzen genielako esango nuke, hurrengo batean ere berdin agertzen baitziren”.

Eguneko menu preziatuak

Famatuak ziren Buruntzak ategunetan eskaintzen zituzten menuak; alde horretatik, Weillek gogoan ditu zenbait urtetan, bezeroek nola egon behar izaten zuten ilaran tabernan, jangelan zeudenak mahaitik noiz altxako

zain. Denboraren poderioz, taberna-jatetxean lan-taldea osatzen zuten nagusi eta zerbitzariak harreman estua egin zuten eguneroko bezero horietako askorekin. “Ahazten ez diren konplizitateak sortzen dira horrelakoetan, ostalarien eta bezeroen arteko ohiko harreman hotza gaintzen dutena”, Weillen esanetan.

Luzea eta amaigabea da eguneroko otorduekin gozatzera behin eta berrero azaldu ohi zitzaizkien bezeroen zerrenda: “Gudarien edo Ama Kandida bi etorbideetan kokatzen diren makina bat tailerretako langileekin hasi, La Salle Berrozpe ikastetxeko edo Berrria egunkariko langileekin segituz...”.

Langileak aipatzen hasita, Añorga auzoan jatetxe baten ardura nola hartu zuten zenbait urtetan, gogora etorri zaio Miren Argi Weilli. “1999-2005 epean, Buruntzako eusteaz gain, Añorga auzoko Jolas Etxea taberna-jatetxea eraman genuen. Eguneroko eguneroko, Rezola harrobiko makina bat langileri eman genion jaten. Primeran generaman hango martxa, baina nekagarria gertatu zitzaigun biei eustea, eta penaz, utzi egin behar izan genuen azkenean”.

"BEZEROAK, JATETXEAN, BEREN ETXEAN BEZALA EGON ZITEZEN SAIATZEN GINEN"



Andoaindar ugari elkartu zen irteeran, baina inguruko udalerrietako mendizaleak ere ez ziren gutxi izan. AIURRI



Ibilbide ertaina Plaza Moretik abiatu zenekoa. AIURRI



Urangatarrek, familia bereko hiru belaunaldi, txangoari ekiteko prest. AIURRI

Ehunka lagun Euskaldunak antolatutako Ibilaldian

Andoain Ibilaldiaren 51. edizioa bikaina izan da eta, neurri batean, arrakasta eguraldi onari zor zaio. Goizean hasita mendian gora abiatzeko giro bikaina zen. Eguerdian bero egin bazuen ere, mendiko oinetakoak jantzita ibiltzeko egun zoragarria izan zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Eguraldi aproposa zen mendiaz gozatzeko. Eta gogo horri jarraiki, ehunka mendizalek bat egin zuen Andoaingo Euskalduna Mendigoizale Taldeak antolatu zuen Andoaingo Ibilaldiarekin. 51. edizioa iritsi da eta haur, gazte eta heldu ugari hurbiltzen da mendi-zeharkaldia egitera. Besteak beste, Belkoain, Aizkorte, Maizulo, Adarra, Leitzaran eta kanalak zeharkatu behar izan zituzten hiru ibilbide horietan.

Ibilbidea luzea 43,5 km-koa izan zen eta eguna argitu aurretik ekin zioten zeharkaldiari. Goizeko 07:00tan abiatu zirenen ibilbidea honakoa hau izan zen: Andoain-Belkoain (491m)-Lasarte-Oria-Azkorte-Krafft-Besabi-

**PARTE-HARTZEA:
190 LAGUN, IBILBIDE
LUZEAN; 179,
LABURREAN; ETA 65,
FAMILIA GIROKOAN**

Maizulo-Adarra (822 m)-Leitzaran-Kanalak-Otieta-Andoain.

Ordubete beranduago, 08:00tan, ibilbide motzekoak abiatu ziren. Honatx, ibilbidea: Andoain-Belkoain (491 m)-Lasarte-Oria-Aizkorte-Krafft-Andoain.

Familia giroko ibilbidea 10 kilometrokoa zen eta Andoain-Belkoain (491 m)-Erdoiztako karobia-Andoain ibilbidea osatu zuten.

Batentzat baino gehiagorentzat ospatzeko modukoa izan zen ibilbide guztia osatu izana.



Familian aritzeko plan bikaina da Andoaingo Ibilaldia. AIURRI



Belkoain aldean, boluntario taldea, edaria eta janaria banatzeko prest. AIURRI



Andoaingo Hamaikakoa aurkeztu zuten apirilaren 4an Andoaingo Plaza Morean. AIURRI

Osatu dute, bi udalerriotan, Euskaraldiaren hamaikakoa

Apirilean murgildu gara eta maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskaraldiaren laugarren edizioa. Ariketa kolektibo erraldoia "Elkar mugituz egingo dugu" lemapean

Xabier Lasa ANDOAIN

Batzordea martxan da eta hamaikakoa aurkeztea izan da lehen ekitaldia.

Rocio Arias (E)

"Euskaraz bizitzeko ahalegin batean da gure lehen protagonista. Aiurri aldizkariaren banatzaileak hainbat ordu ematen ditu AEK euskaltegian".

Jimmy Brosa (U)

"Ubitarte futbol zelaian, kirol jardueran eta gizarte balioetan,

trebatzen dira dozenaka haur eta gazte. Mendeurrena bete du Euskaldunak eta Jimmy Brosa presidentea dugu bigarren protagonistan".

Marijo Irastorza (S)

"Eragile askori esker herri bizia da Andoain. Ostalari, dendari eta merkatarien alde lanean ari da Salkin elkarteak. Urteotan, euskaraz bizitzeko ahalegin batean da Marijo Irastorza dinamizatzailea. Bejondeizula, Marijo".

Jaime Nieto (K)

"Taldekako kirol jardueren artean, iazko udaberrian, historia egin zuten Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak: Euskal Ligako sailkapena lortu zuten. Ibilbide oparoa egin duen taldekideetakoa da Jaime Nieto".

Arkaitz Amenabar (A)

"A, Andoain, Auzoak. Santakruztzekin ekingo diogu auzoetako jaien errondari. Iraila partean Sorabillako jaiak ospatzen dira eta jakin dugu Jai Batzordea

biziberritzen ari dela. Gazte horien artean dira Arkaitz Amenabar eta lagunak. Jaien antolakuntzaren lekukoa hartzeko ekimena txalogarria da".

Sekina Samorie (R)

"Andoaindar hitzak "r" du amaieran. Askotariko andoaindarrez osaturik dago udalerria. Mundu osotik Andoainera, bizimodu hobe baten bila, hurbildu diren horietako bat dugu Sekina. Gure herria ulertzeko eta euskara barneratzeko ahalegina egin izana azpimarragarria da".

Itxaso Mendiluze (A)

"Arteak eta kultur jarduerak erreferentziatzeko gune dute Bastero Kulturgunean. Erakusketa-aretoan muntaia ederrak ikusi ditugu eta artisten lana erakusketa gelara egokitzeke ikuspegia Itxaso Mendiluzeri zor zaio. Arte garaikidea Andoainera ekarri duen erantzuleetakoa da, zalan-tzarik gabe".

Iñaki Irulegi (L)

Lan mundua euskaraz bizitzeko ekimena oso apala zen garaian, Latz kooperatibako langileak eredu garriak izan ziren. Euskararen aldeko ekimen ugari parte hartu zuten. Latz dagoeneko ez dago martxan baina bertako langileen ekimena ez dugu oharkabean igarotzea nahi. Gaurkoa izan dadila Latz kooperatiban lan egin zuten herrikide euskaltzaleen aldeko omenalditxoak. Haien

ekimena ordezkatuko du, Iñaki Irulegik".

Kludia Alduntzin (D)

"Plaza Morean gaude eta ondoan dugun eraikinean hitzak bezain besteko garrantzia du doinuak. Udal Musika Eskolako kideen artean Kludia Alduntzin lan ona egiten ari da, ikasleak trebatzen eta musika lau haizetara zabaltzen".

Garbiñe Agirre (I)

"Tbilbidea. Garbiñe Agirre jubilatu zen, baina erretiratu ez. Iaz, Leicaur aldizkarirako saia-kera mardula aurkeztu zuten: *Euskararen transmisioa Andoainen XX. Mendean. Hainbat emakume euskaldunen bizipenak eta ikuspuntuak*. Egun, *Andoaingo euskera, bihotzetik kalera!* Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurrera daraman ekimendia berriaren murgilduta dabil.

Juanjo Elordi (A)

"A letrak joku handia eman digu: Andoain, auzoak, andoaindarrak, artea... Eta, nola ez, Axeri Dantza. Urteurren bikoitza ospatzen ari dira aurten: Axeri-Dantza parekidearen 25. urteurrena eta Axeri-Dantzaren berreskurapenaren 50. urteurrena. Hamaikakoaren hamaikagarrena Axerientzat da. Juanjo Elordik jasoko du hamaikagarren letra".

Hurrengo hitzordua maiatzaren 9an izango da, "Xaxa fest!" izenekoa. Gazte, nerabe eta familiei zuzendurikoa izango da.



Urnietako Hamaikakoa aurkeztu zuten apirilaren 2an Urnietako Berrasoeta parkean. AIURRI

Zehaztu dituzte Urnietan egin nahi dituzten jarduera gehienak

Urnietako hamaikakoa

- Nekane Kortaxarena Goenaga, irakaslea (E).
- Antton Jauregi Aranburu, txistularia eta irakaslea (U).
- Jon Unanue Lopez, kultur-eragilea (S).
- Unai Gaztelumendi Arandia, marrazkilaria eta bertsolaria (K).
- Unai Legarreta Astiasaran, irakaslea (A).
- Amagoia Mujika Tolaretxipi, kazetaria eta Berriako zuzendaria (R).
- Naroa Urbizu Kortaxarena, Poxta Zahar elkarteko kidea (A).
- Imanol Ansa Urruzola, erremontista (L).
- Xabier Altuna Jauregi, sagardogilea (D).
- Guangli Wen Chen, epaitegi-tako itzultzailea, eta txinera zein ingeleseko irakaslea (I).
- Enara Donavera Garcia, musikaria (A).

Guztia zehatz mehatz itxita ez badaukate ere eta hitzorduren batek aldaketaren bat edo beste izan dezakeela aipatuta, herrian Euskaraldia aitzakia gisa hartuta egingo diren hitzorduen berri eman dute:

- Apirilak 25: kantujira, Kantazauneko kideekin.



- Maiatzak 9: bertso-pilota ekitaldia.
- Maiatzak 14: Lourdes Iriondori buruzko mahaingurua, Jon Martinek argitaratu berri duen liburuaren gainean.
- Maiatzak 15: zineforuma.
- Maiatzak 16: Adarrara igoera, gaez.

Ekitaldi nagusia, maiatzaren 18an

Maiatzaren 18an, Euskaraldia hasi eta hiru egunera, hain justu ere, ekitaldi nagusia egingo da Plazido Muxika plazan: erraldoiak, hamaikakoen aurkezpena, dantza-ikuskizuna, bazkaria, erromeria...

Xoxokako eskolan, maiatzaren 25ean

Ariketa erraldoiari itxiera ezinhobea emateko, bigarren hitzordu bat izango da Xoxokako eskolan, Euskaraldiaren azken egunean: altxorraren bila jolasa, kantu-saioa, bertsolariak, trikitalariak...

Txapak, maiatzaren 1ean hasita

Maiatzaren 1etik aurrera izango da aukera txapa jasotzeko, Gazte Informazio Bulegoan zein Lekaion. Antolatzaileek maiatzaren 9an, 10ean zein 11n postua jarriko dute kalean, txapak banatzeko.



Euskaraldia

EGIN KLIK!

Atal berezia
webgunean

aiurri.eus





Maddi Lopez taldeko bigarren entrentzailea eta Aloña de Torres kapitaina. AIURRI

“Jarraipena eman behar diogu daukagun dinamika onari”

MADDI LOPEZ ETA ALOÑA DE TORRES UKE SENIOR TALDEA

Kopan jokaturako partida guztiak irabazi ditu Urrietako taldeak, Emakumezkoen Gorengo Mailan. Lehiaketa irabaztea dute helburu

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Iristear da denboraldi amaiera UKEko emakumezkoen lehen taldearentzat. Ez diote, ordea, edonolako bukaera eman nahi. Kopa eskuratzeko bidean, osasuntsu dago taldea partida guztiak irabazita. Baikor ageri dira Maddi Lopez taldeko bigarren entrenatzailea zein Aloña de Torres kapitaina, taldearekiko konfiantza handiarekin. Joan den denboraldiko argazkia errepikatu nahi dute, finalera iristeko anbizioa baitaukate; aldaketa txiki

batekin, ordea: aurtan, garaipena, kopa, Urrietara ekarri nahi dute. **Bostetik bost. Ez da edonolako marka. Emaitzek erakusten dute denboraldi amaiera izanda ere baduzuela indarririk gordeta goiko postuetan lehiakor izaten jarraitzeko.** **Aloña de Torres:** Hasieran, gure helburua ez zen Kopan lehiatzea, igoera faserak iristea baizik. Okertu egin zaigu denboraldia, ordea, besteak beste, erabakigarriak ziren zenbait partidatan atezainik gabe aritu ginen, baina, beno, Kopan gaude eta bai

edo bai irabaztea da gure asmoa. Orain, gainera, lehendik jokatu ez dugun taldeekin gaude lehiatzen, Santo Tomas Lizeoa, Mariño Real Union... Arinagoa da hori, monotonia hausten duelako.

Maddi Lopez: Bizitasuna ematen du jokoan titulu bat egotea jokoan. Igoera fasean egotea zaila zen guretzat, baina jarraipena eman behar diogu daukagun dinamika onari, kopa eskuratzeko.

A.T.: Nahiko talde berria dugu, gainera. Jokalari asko aldatu dira, joan den denboraldiarekin

alderatuta. Berritua hasten bezala izan da, elkar ezagutu behar genuelako, taldea egiteko. Kadeteetatik igo baino, kanpotik etorri zaigu jendea.

Aurreko asteburuari erreparatuta, aise irabazi zenioten zarautzarrei joan den asteburuan, beren zelaian.

M.L.: Ondo ekin genion partidari, nahiz eta lehen gola sartzea kostatu zertxobait. Atsedenera 0-0 iritsi ginen, baina gu izan ginen nagusi jokoan, baita bigarren zatian ere. Ahaleginaren ahaleginaz lehen sartzea lortu genuen eta jarraian etorri ziren beste biak. Are gehiago, lehen gola sartu eta pare bat minutu-ra sartu genuen bigarren gola. Kontzentrazio handiarekin jokatu zuten denek, bai titularrek, bai ordezkoez eta horren isla da emaitza (1-3).

Datorren asteburuan, zuen taldeko aurkari zuzena jasoko duzue etxean, Santo Tomas Lizeoa. Partida erabakigarria izan daiteke, sailkapenari begira.

A.T.: Hori da, lehia handiena daukagun taldea da Santo Tomas Lizeoa. Hortaz, esijentzia handiko norgehiagoka izango da. Lehen itzulian, nahiko pareko ibili ginen, baina aukera dezentte eduki genituen. Talde indartsua da, baina asteotako martxarekin jarraituz gero, hiru puntuak eskura ditzakegu. Pisua kentzeko aukera emango digu aste honetan irabazteak, presioa jaitsi ahal izateko.

Horrelakoetan, etxean jolastea zuen alde, ezta?

A.T.: Nire ustez, bai, nahiz eta zelaia ez egon bere baldintza onenetan. Dena dela, joan den urtean, adibidez, etxean jokatu genuen Kopako finalerdia, Ilintxaren aurka. Jendea bildu zen eta bultzada eman zigun horrek, irabazteko ardura dugu eta motibazioa ematen ditu horrek.

Denboraldiari erreparatuta, egite aldera, nolakoa izan da taldearen orain arteko ibilbidea?

M.L.: Kopa kontuan hartu gabe, oso ondo ekin genion denboraldiari, baina indarra galdu genuen denborarekin. Zaildu egin zitzaizkigun igoera fasean lehiatu ahal izateko partida erabakigarriak eta horientzat gaude Kopan.

Taldeko kapitaina zara zu, Aloña. Nola ikusten duzu taldea?

A.T.: Gogo handiarekin nahiz urduritasunarekin daude jokalariek. Jende berria dago taldean eta ez du ezagutu zer den Kopa

eskuratzeko lehia izatea. Urte gehiago daramagunon kasuan, pena sentitzen dugu, igoerara ez klasifikatzeagatik. Pozgarria da, ostera, herriarentzat Kopa irabazteko aukera izatea.

Bi talde gaude, aurtan. Bada, bi horietan lehen postuan gelditzen diren taldeek jokaturako dute finala, alegia ez da ez finalerdienik, ez finaleririk izango. Maiatzaren bigarren hamabostaldian izango da azken partida. Bide onetik goaz eta inportantea da ahalik eta partida gehien irabaztea.

Eskuetatik gertu izan zenuten Kopako garaipena joan den denboraldian: 1-0 galdu zenuten Oriokoren kontra. Aurtan, finalera iristeko anbizioz al zaudete?

A.T.: Jakina. Nire kasuan, hirugarren finala izango dut. Kadeteetan, irabazi egin genuen. Joan den urtean, galdu. Aurtan, hortaz, irabazi egin beharra dugu. Berezia da taldekideontzat. Erasmus bekarekin bi atzerritar ditugu gurekin, gainera, Amerikako Estatu Batuetakoak. Bietako batek ezin izango du finala jokatu, eta besteak, beharbada, bai. Horrelako gauzek bizitasuna ematen diote taldeari.

Maddi, zure kasuan, lehen aldia duzu kategoria honetan entrenatzaile lanetan. Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

M.L.: Kadete mailan izan naiz entrenatzaile aurretik eta jauzia egon da, bai. Aipaturako lehenengo kategorian 15-16 urteko jokalariek dituzu eta, aurtan, bada ni baino zaharragoa denik. Kategoria bera ere asko aldatzen da, gauza konplexuagoak landu daitezke eta. Ez nuen inor ezagutzen, gainera, Maitanek (lehen entrenatzaileak) esanda etorri bainintzen. Aldaketa polita izan da eta asko lagundu dit taldeak, parte izateko. Emaitza onak ari gara eskuratzen Kopan eta giro ona daukagu taldean.

Aurrera begira, zein izango da lehiakor izaten jarraitzeko estrategia?

A.T.: Jarrera. Futbolistikoki gauzak ondo ateratzea eragiten du horrek. Kontzentrazio handiarekin jarraitu behar dugu eta sinetsi, posible dela. Elkar zaintzen jarraitzea izango da gakoa.

M.L.: Dinamika onak taldeko giroa osasuntsu egotera eramaten du eta horrek ere zerikusia du jokoarekin. Finalera iritsiko garela uste dut, bai jarreragatik, bai zelai barruan zein kanpoan egin dugun lanagatik.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Gorengo Erregionala mailan liga gori-gori dago eta Euskaldunak igoera eskuratzeko aukerak baditu. Liga irabaziz gero, zuzenean igoko litzateke. Bigarren sailkatuta, beste multzoko bigarrenaren aurka buruz buru ariko litzateke igoera lortzeko. Bada hirugarren aukera bat, baina hori oraindik ez dago jakiterik: goi mailatako ligatan izango diren euskal taldeen igoera-jaietsieren arabera, gerta liteke bigarren sailkatuen play-offeko galtzaileak ere igoera lortzea. Emozioa ez da faltako: lau jardunaldiren faltan, igoera eman diezaiokeen aukeren alde borrokan ari da Euskalduna.

Ligari amaiera emateko lau jardunaldiren falta zein da zuen sentsazioa?

Baikorra naiz, izatez. Denboraldiren hasieran jarritako helburua lor daiteke, nahiz eta orain gure aurretik bi aurkari egon. Maiatzeko lehen asteburuan lidergotzan dagoen Roteta etxean hartuko dugu eta, hurrengo jardunaldian, Roteta eta bigarren sailkatua, Orioko, elkarren aurka ariko dira. Argi dugu taldeko kide guztiok: lautik lau irabazita, helburua lortuko dugu.

Aukera hori erreala da: garaipen asko kateatu dituzuelako, jarraian, denboraldi honetan.

Bai, azaroaren amaieran hasita, Santo Tomas Lizeoa lidergotzan zen eta Ubitarten irabazi genien. Lehen postua eskuratu genuen, bolada politari hasiera eman... Asteburuan, hain justu, Santo Tomase Lizeoaren zelaian ariko gara berriro.

26 jardunaldi eta lau puntuko aldeko aldea besterik ez dago hiru talderen artean. Marka da gero!

Lehenengo postuan geundenean uste genuen aurkariak atzera egingo zutelara, baina ez zen horrela izan. Eta, aldiz, apalaldia guk izan genuen eta haiek, berriz, garaipenei eutsi zioten. Orain, bolada txarrean eurak sartzea espero dugu. Aurreko asteburuan liderrak partida galdu zuen, beraz, lau puntura dugu lidergotza.

Zuek, aldiz, Danena 1-0 garaitu zenuten. Oso hasieran sartu zenuen gola eta, azkenerako, komeriak!

Ez zen denboraldiko onena izan. Etxean gehien kosta zaigun partida izan da. Lehen hamar minutuak oso onak izan ziren eta gola orduan iritsi zen. Baina Danenak estutu gintuen eta ez genuen horri aurre egiten jakin

"Talde honekin bizitzen ari naizena opari bat da"

ANDER SETIEN EUSKALDUNAKO GORENGO MAILAKO KAPITAINA

26 urterekin, "Seti" defentsa taldeko kapitaina da. Rol garrantzitsua betetzen ari da taldean, gazteagoak diren jokalariei etengabe animoak emanez eta laguntza eskainiz



Ander Setien, astelehen arratsaldean Ubitarte zelaian. AIURRI

eta, egia esan, gola sartu genuenetik ikaragarri sufritu genuen. Alegia, ia 90 minutuetan. Zorionez, ez genuen golik jaso baina berdinketa ere ez litzateke baxterez injustua izango.

Jokoan dagoenaren aurrean urduritasunaren eragina izan daiteke?

Baietz esango nuke. Helburua gertu dugu eta puntuak hirunaka lortu behar dira. Igandean berdinketak ez zigun balio. 1-0 irabaziz, majo sufritzen, aurkaria gorantz begira jokatzeko... arriskua hor zegoen eta gu urduritzea eragin zuen. Oso talde gaztea dugu eta presio hori kudeatzea zailagoa da.

Baina gerta ala gerta, nahiz eta hirugarren amaitu, denboraldi oso ona egiten ari zarete.

Bai. Oso ona, eta partida onak eginez Ubitarten eta etxetik kanpo ere. Aurreko denboraldian etxetik kanpo puntu asko utzi genituen eta gol gehiago jasotzen genituen. Alderdi horiek hobetzea lortu dugu eta denboraldia biribila da. Baina lehen postua hain gertu ikusita, lehenengo postuan izan garelako, hirugarren goaz eta badirudi balio gutxi duela egiten ari garena.

Kapitaina zara. Ardura gehiago antzematen duzu zure gain, aste hauetan? Jokalariek etengabe hitz egiten duenetakoa zarelako.

Horrela izan naiz beti, futbola horrela bizi dut. Egia da, batzuetan, gehiegi hitz egiteak jendea urduri jartzen duela baina toka-

tzen zaigu animoak ematea. Esperimentzia handiagoa dugunok betebeharrak hori dugu. Taldea babestu behar dugu eta gazteei konfiantza eman. Taldekideak, teknikoki, oso onak dira eta beste guztia urteen poderioz iritsiko zaie.

Aste hauetan pittin bat gehiago igoko da inplikazioa?

Hasieratik taldeak bikain erantzun du. Lan saioen maila aparta da, hogeitik gora elkartzeko gara prestaketa saioetan eta hori talde izaera indartzeko funtsezkoa da. Futbolaren aurpegi ezberdinak ezagutu ditut eta talde honekin bizitzen ari naizena opari bat da. Aste politak datoz, honaino iritsi gara eta jakitun gara tentsio handiko partidak iritsiko direla. Baina aurrealdean gauden seinale da. Bizirik gaude.

Ez da kasualitatea Aitor Gaztañagak ardura hartu duenetik taldeak izan duen garapena.

Bigarren entrenatzaile zela ikusten zen gogotsu zebilela. Eta, diozun moduan, ez da kasualitatea. Hark taldearen martxa hartu eta partida asko irabazi genituen. Oso intentsoa da, gogoko du futbola eta gure onena lortzen saiatzen da. Lan hori, bereziki, entrenamenduetan ikusten da. Partidatan emaitzak hor daude.

Nola baloratuko zenuke, pertsonalki, zure denboraldia?

Beste rol batean ari naiz, gazteei laguntza ematen. Urduritasuna nabari zitzaidan lehen eta, denborarekin, ikuspegia aldatzen da. Ondokoari aholkuak ematea eta duen onena emateko estutzea dagokit orain. Gustura nago.

Zaletuen bultzada aipatu gabe ezin utzi.

Sekulako babesa ematen digute, txikienetarik hasita. Ubitarte bete egiten da eta, aurrekoan, Orion hangoak bezainbeste ziren gure aldeko zaletuak. Oso eskertuta gaude.

FUTBOLA

GORENGO MAILA, 26. jardunaldia:
EUSKALDUNA-DANENA 1-0

SAILKAPENA

| | | |
|---|--------------------|-------|
| 1 | ROTETA | 56 p. |
| 2 | ORIOKO | 52 p. |
| 3 | EUSKALDUNA | 49 p. |
| 4 | SANTO TOMAS LIZEOA | 45 p. |

GORENGO MAILA, 27. jardunaldia:
S.TOMAS LIZEOA-EUSKALDUNA
Larunbata, 12. 15:30. Berio.
GORENGO MAILA, 28. jardunaldia:
EUSKALDUNA-ROTETA
Maiatzak 3-4. Ubitarte.



BURUNTZALDEA IKT

Gipuzkoako Kluben arteko kopa

Gipuzkoako Kluben arteko Kopa ospatu zen Tolosako Usabal kiroldegian eta bertan izan ziren Garazi Etxeberria, Iker Gorostegi, Miren Sarobe, Mayi Gorostegi, Irati Etxeberria, Oihan Matute, Mario Amantegi, Ibon Elola, Kimetz de la Cruz, Amaur Iparragirre, Ane Meyer, Nora

Miguellez eta Ander Martinez. Taldekako sailkapenean, emakumezkoetan 10. postuan sailkatu ziren eta, gizonezkoetan 9. postuan. Sailkapen bateratuan, aldiz, 8. izan dira. Buruntzaldea IKT taldeko arduradunak "benetan pozik" daude lortutakoarekin.

Bi lasterketa on, Galizian

Andoaingo Txirrindulari Eskola Espainiako Kopa jokatzeko ari da eta Galizian emaitza onak lortu dituzte. Betanzosen Irati Aranguren bostgarren izan zen, Izaro Etxarri eta Intza Del Teso tropelean iritsi ziren eta Nahia Garciak zulatua izan zuen. Pontevedran Aranguren izan zen garaile zortzikote batean izandako sprintean. Kopako liderraren mailota berreskuratu zuen.



ANDOAINGO

Leizaran Ernio taldeak etxean du ligako azken partida

Euskadiko Gizonezkoen Senior Txapelketako azken jardunaldia asteburu honetan jokatu da eta Leizaran Ernio Inmobiliaria taldekoek etxean agur esango diote lehiaketari, Allurralden jokatu baita Saiekoren aurkako partida. Igandean izango da 12:15etan hasita. Aurreko asteburuan Elgoibarreko taldearen aurka galdu zuten (35-28). Une honetan, Andoaingo taldea azkenaurreko postuan da.

1. Mailarako igoera fasean murgilduta dabil Urnieta

Urnietak 2-0 garaitu zuen Lengokoak taldea, Urnietan bertan jokatuako partidaren. Hamar jardunaldi igarota, Gizonezkoen erregionala laugarren postuan doa. Sei garaipen lortu dituzte eta Intxurre liderrak, zazpi. Larunbat honetan, 15:30etan hasita, Trintxerpen dute partida.



LEIZARAN

Igandean amaituko da liga

Zarautzen amaituko da Leizaran Lanbroa tabernarentzat Euskal Liga, igande honetan (12:15). Aurreko asteburuan bosgarren postua finkatzeko garaipen garrantzitsua lortu zuten, sailkapenean atzetik zetorren Irauli-Bosteko gaindituz (26-22). Laugarren postua puntu bakarrera dute eta hori lortzeko andoaindarrek euren partida irabazi eta Urdaibaik kale egin beharko luke.



LEIZARAN

Denboraldi biribila

Infantil mailako Leizaran McDonalds taldeak aurreko asteburuan Gipuzkoako Ligako txapelketa lortu zuen, Pulpo garaitu ostean. Zaletuen babesa ez zitzaion falta izan. Denboraldi biribila egiten ari dira, neguan Andoain Cup nazioarteko txapelketa irabazi baitzuten. Jokalariek ez dute berehalakoan ahaztuko denboraldi honetan bizitakoa.



LEIZARAN



Urnieta Artola Harategia taldea. UKE



Urnieta Ñam Jatetxea taldea. UKE

Liga amaituta, play-offari ekingo diote

Ligako azken partida galdu zuen Urnieta Artola Harategiak, baina ordurako ziurtatuta zuten play-offean sartzeko aukera. Donibane taldea izango da aurkari, lehen buruz burukoan. Klubeko beste hiru taldeak, bestalde, garaile izan ziren aurreko asteburuan

Erredakzioa URNIETA

Jakina zen Urnieta Artola Harategiak Euskal Ligan jokatzeko play-offean aritzeko aukera ziurra zuela. Aurreko asteburuan ligako Gizonezkoen 1. Lurreko txapelketako azken jardunaldian, beraz, ezer gutxi zegoen jokoan urnietarrentzat.

ESKUBALOIA

LURRALDEKO 1. MAILA, 22. jardunaldia:
UROLA-URNIETA **31-28**

SAILKAPENA

| | | |
|---|---------------------|-------|
| 1 | HONDARRIBIA BIDASOA | 40 p. |
| 2 | DONIBANE | 33 p. |
| 3 | MEK EIBAR | 29 p. |
| 4 | ORDIZIA | 27 p. |
| 5 | URNIETA ARTOLA | 25 p. |

UKEkoak ez ziren eroso egon pistan. Bi taldeen arteko lehen zati parekatuan, atsedendira, 15-16ko emaitzarekin iritsi ziren urnietarrak. Erritmoak ez zuten behera egin bigarren zatirean hasieran, non etxeoak pixkanaka markagailuan nagusi izango ziren, amaiera bi-

tarte 2-3 goleko errentari eutsiz. Liga amaituta, play-offa iritsiko da: finalurrekoetan Donibane izango dute aurkari. Azken aurreko jardunaldian Urnietan berdinketarekin amaitu zen partida.

Garaipnak nagusi, asteburuan

Urnieta Ñam Jatetxeak Pulpo garaitu zuen etxetik kanpo (13-21), gorrien partida bikainean. Aurrerapen handia erakutsi dute denboraldi honetan. Urnieta Kamox Precisionek urteko bigarren garaipena lortu zuen (24-20), Leizaran Txuria mendean hartuta. Eta kadete mailako Urnieta Iñaki Mecanizadosek garaipen garrantzitsua lortu zuen (29-26) Elgoibarren aurka, bere multzoko lidergoari eusteko.

Lehen postuari eusteko partida garrantzitsua

Junior mailako Ganbarak lehen postuari eusteko partida jokatu du Allurralden

Erredakzioa URNIETA

Gizonezkoen junior mailako partaidetzako bigarren multzoan berdintasuna nagusi da. Sei jardunaldi igaro dira eta Ganbara lehen postuan da. Hori bai, puntu berdinekin atzetik datozkio Debasket eta Hondarribia taldea. Hiru taldeek seina garaipen dituzte, orain arte. Asteburu honetan sailkapena gehixeago argitzen joango da Ganbara eta Hondarribia elkarren aurka ariko baitira Allurralden. Larunbat honetan izango da, 10:30ean hasita.

SASKIBALOIA

PARTAIDETZAKO LIGA, 7. jardunaldia:
GANBARA-BKL **51-48**

SAILKAPENA

| | | |
|---|---------------------|-----|
| 1 | GANBARA | 6/1 |
| 2 | DEBASKET | 6/1 |
| 3 | HONDARRIBIA | 6/1 |
| 4 | EIBAR | 5/2 |
| 5 | GOIERRI | 4/3 |
| 6 | INTERNACIONAL INTXA | 4/3 |
| 7 | EASO BASKET | 4/3 |

8. jardunaldia:
GANBARA-HONDARRIBIA
Larunbata, 12. 10:30. Allurralde.

9. jardunaldia:
EASO-GANBARA
Maiatzak 3-4.

Larunbat honetako jardunaldia azken aurrekoa izango da eta Santa Krutz jaiak ospatzen diren asteburuan iritsiko da ligaxkari amaiera emango dion jardunaldia. Zer dela eta doa Ganbara lehen postuan, zazpi jardunaldi eta gero? Bada, lortutako sei garaipen horietako estatistika onenak dituelako. Hasteko, puntu gutxieng jaso duen taldea da: 283. Ligan 300dik behera jaso duen talde bakarra da Andoaingoa. Eta, erasoan, soilik bi taldek gaitzitu dute 400 puntuen langa: Ganbarak (412) eta Intxak (415). Emozio handiko bi partida datoz, beraz.

Urrizaren agurra, Labriten

Javier Urrizaren aroa amaitzen ari da eta agur-jaialdia bere jaioterrian, Nafarroan, egingo dute. Apirilaren 11n izango da, 18:00etan, Labrit pilotalekuan. Protagonistak azpimarratu duenez, "etxean, Labriten, agur esatea asko da niretzat. Oso arratsalde berezia izango da eta hainbeste urtetan lagundu didan publiko guztiarekin partekatu nahi dut".



ORIAMENDI

Leitzaran ezagutzeko irteera, Mintzalagunak egitasmoak antolatuta

Leitzaran bailarako hainbat txoko bisitatzeko aukera izango da larunbat honetan, 09:00tan hasita. Euskalduna MTK eta Mintzalaguna ekimenak antolatu dute, eta Udaleko euskara zerbitzuak eta AEK euskaltegiak sustatua da. Parte hartzeko, 688 746 643 telefono zenbakira hots egin behar da edota Andoaingo AEK euskaltegian izena eman. Doan da. 09:00etan Goikoplazatik abiatuko da ibilaldia, eta ibilbidean Bertxin, Praxkuren Borda, Kanala, Ondolar, Goiburua eta Unanibiko zubitik igaro ostean, Andoainera itzuliko da. 4 orduko txangoa izango da, 16 KM-ko luzerakoa, eta partaideek 500 metroko desnibela gaitzitu beharko dute.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ANTZERKIA

ANDOAIN "Itzulera"

Dejabu konpainiaren berriena Andoainera iristear da. **Apirilak 11, ostirala.** 19:30, Bastero Kulturgunea.

URNIETA "Andereño"

Hitzik gabeko antzerkia. **Apirilak 13, igandea.** 17:30, Sarobe.

LEHIAKETA

ANDOAIN Aurkezpena

Andoain Laburrean euskarazko bideo laburrak egitea xede duen lehiaketa martxan da. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 19a izango da, eta sari-banaketa ekitaldia ekainean. **Oinarriak:** Andoaindarraeuskaraz.eus.



Eguraldi onarekin Alfaro parkean izango da ekitaldia. AIURRI

ANDOAIN Oroituzen ekitaldia, memoria historikoa ardatz hartuta

Larunbat honetan ekitaldia antolatuta du Oroituz, Andoainen elkarteak. Urtero bezala, jarduera ugari izango dira. Lore-eskaintza, txalapartariak, bertsolariak, dantzariak eta Banda Errepublikanoa. Aurten, Debagoienako Intxorta 1937 taldekoak gonbidatuko dituzte. Eguraldi txarrekin ekitaldia Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian izango da. **Apirilak 12, larunbata. 12:00. Alfaro plaza.**

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Por todo lo alto**

Apirilak 12, larunbata. 19:30.
Apirilak 13, igandea. 19:30.
Apirilak 14, asti. 17:00, 19:30.

Minecraft

Apirilak 12, larunbata. 17:00.
Euskaraz.
Apirilak 13, igandea. 17:00.

Tierra de nadie
Apirilak 19-20-21-22.



SINOPSIS

Por todo lo alto

Zuzendaria: Emmanuel Courcol. **Aktoreak:** Benjamin Lavernhe, Pierre Lottin, Sarah Suco, Nathalie Desrumaux, Stephanie Cliquennois, Ludmila Mikael... **Herrialdea:** Frantzia. **Urtea:** 2024. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 103 m.

"Por todo lo alto" filma, asteburu honetan, Bastero Kulturgunean

Thibaut nazioartean izen handia duen orkestra zuzendaria da, munduan barrena bidaiatzen duena. Adoptatua dela jakiten duenean, anaia bat aurkituko du, Jimmy izenekoa. Frantziako iparraldeko musika-banda batean tronboia jotzen duen eskola-jantoki bateko langilea da. Hasiara batean ez dute elkarren arteko lotura handirik, musikarekiko maitasuna izan ezik. Anaiaren musika-trebetasun aparten berri jakitean, Thibautek patuaren bidegabekeria konpondu nahi du. Jimmy orduan hasiko da amets egiten beste bizitza batekin...

IKUSBERA

Laster, haur aldizkariaren zenbaki berria!

Harpidedun izatearen abantailak

AIURRI

Iberian GT Andoain rol jokoak Andoainen, asteburu honetan

Asteburu honetan mundu fantastikoa eta zientzia fikzioa uzartzen dituen Iberian GT Andoain txapelketa jokatu da Bastero Kulturgunean. Andoaingo Enderren Jokoa elkarteak antolatuko du, eta hitzordua girotzeko erakusketa prestatu du Basteroko erakusketa-gelan; ostirala bitarte, arratsaldero egongo da zabalik.

Santa Krutz jaietako kuadrillen eguneko bazkaria

Maiatzaren 2an Kuadrillen Eguna ospatuko da eta bazkarirako txartelak azkar batean agortu dira. Aurreko larunbatean postua jarri zuten Juanita Alkain plazatxoan eta bertan saldu zituzten guztiak. Horrenbestez, txartelak saltzeko bigarren eguna bertan behera utzi zuten. Aste Santuak igaro eta berehala datoz Santakruzak.

San Juan jaietako txupinazoa botatzeko hautagaiak

Andoaingo Udalak txupinazoa nork bota behar duen erabakitzeko tartea zabaldu du. Proposamenak aurkezteko aukera ostiral honetan amaituko da (apirilak 11). Proposamenak aurkezteko tokiak: Bastero kulturgunea, Ataria, Anbrosia Olabide eta andoain.eus. San Juan jaiak ekainaren 20tik 25era ospatuko dira aurretan.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA


Apirilak 14, astelehena. ANDOAIN
Andoaingo anbulatorioan hitzordu berria: 16: 30etik 20:30era.
Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua hartu behar da astelehen goizean bertan 943 00 78 84 telefono zenbakira deituta.



ZORION-AGURRAK



URNIETA
Hodei Jauregi Garcia
Apirilaren 15ean gure etxeko txikiak 2 urte beteko ditu! Muxu potolo bat atxete, osaba eta izebaren partez. Maite zaitugu!



ANDOAIN
Naiara Ocon Lertxundi
Zorionak Naiara! 10 urte beteko dituzu, zorionak eta besarkada bero bat zuretzat, politta! Askok maite zaitugu! Etxekoak

Sekulako arrakasta, Queen gogoan hartuta

Udal Musika Eskolako Bandak Queenen kantutegia biziberritzeko ekimenak arrakasta handia izan zuen. Ez ziren, gainera, bakarrik aritu. Ana Belen Garcia andoaindarra pianoarekin lagundu zien, eta Patxi Zabaletak eta Jon Gurrutxagak Brian May eta Freddy Mercuryren rolak bete zituzten. Emanaldia biribiltzeko Xanti Korkostegi aktoreak hainbat esketak egin zituen. Txalo zaparrada jaso zuten, denek ere, emanaldiaren amaieran. Bideoak, ikusgai, aiurri.eus webgunean.



AIURR



UDAL MUSIKA ESKOLA

Abeslari gazteen topaketa, Hondarribian

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko kideek jardundaldia antolatu zuten Hondarribian, aurreko asteburuan. Aitor Biain-Bidarte, Nora Chena eta Katrin Iturraldearen esanetara kantuan aritu ziren Beasain, Zegama, Oñati, Bergara, Donostia, Hernani eta

Andoaingo abesbatza gazteak. Topaketarek jarraipena emanez, biharamunean, Hondarribian bildutako abeslari guztiek emanaldia egin zuten Errenterriako Lekuona fabrian. Kontzertu horretan, Katrin Iturralde izan zen zuzendaria.

Kultur-emanaldien arrakasta

Bastero Kulturguneko eskaintza kulturzale askoren interesekoa izaten ari da azken hilabeteotan. Auditorioko emanaldietara ehunka lagun ari da hurbiltzen. Aurreko asteburuan, esaterako, Olaia Intziarteren emanaldian eta Udal Musika Eskolako kontzertu berezian jendetza elkartu zen.

HERIOTZ-OHARRA

Mertxe MANTEROLA GARMENDIA andrea

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide aitzindaria, Apirilaren 2an hil zen, 68 urte zituela.



Manterola eta Garmendia, Mertxe euskalgintzaren zokaina; izar-argien ilunbidean ihesi zoazkigu baina. Zintzoa bezain maitagarria,

apala kementsua adina. Ama Lurraren zinezko aihena: bizi berriaren zaina! Zor dizugun maitasunean urre gorria alajaina!

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Andoain, 2025eko apirilak 3.





Banda Errepublikanoko abeslariak, Gora Kaletxiki Txarangako musikariak eta Sebastopoleko Dantza eskolako dantzariak Gaztetxean martxoaren 28an egin zuten entseguan. AIURRI



Sebastopol dantza eskolako Jaione Albeniz, Aritz Santamaria, Nora Orbegozo eta Itziar Sistiaga. AIURRI



Sebastopoleko dantzariak Alfaro parkeko ekitaldian, iaz. AIURRI

Abeslariak, musikariak eta dantzariak, frankismoaren biktimen alde

Andoainen frankismoak zapal dutako herritak gogoan hartuta urtero egiten duten omenaldian, hainbat eragilek eta kultur gilek hartzen du parte. Ez dute hutsik egingo aurtengo ekitaldian ere

Xabier Lasa ANDOAIN
Mintzaldien atalean, Debagoienan oroiaren historikoa lantzen duen Intxorta 1937 kultur elkartereko Juan Ramon Garaik eta Oroitz elkarteko Lurdes Arteagak hartuko dute hitza.

Biktimen aldeko lore eskaintzarekin batera, Maizorri txalaparta eskolako txalapartarien,

Urkiko dantza dantzari eta txistularien eta Punttuka bertso eskolako bertsolariaren txanda izango da ekitaldiaren lehen partean.

Ekitaldiaren bigarren zatian, herriko zenbait abeslariak eta Gora Kaletxiki txarangak osatutako Banda Errepublikanoaren saioa helduko da. Frankis-

moaren eta faxismoaren aurkako kantutegiari eutsiko diote, urtero legez. Besteak beste, "A la barricadas", "Eusko Gudariak", "Internazionala", "Len amar lagun giñan etxean", "Bella Ciao", "Ekaitza"... abestiak biziberrituko dituzte. Joxe Mari Oiartzabal zuzendariak Andoingo biktimen omenez

sortutako "Justizia denontzat" abestia ere interpretatuko dute ekitaldian.

Gainera, Banda Errepublikanoak, urtero, abesti bat bere kantutegira eransteko ohitura hartua dauka. Horrela, Pablo Sorozabalen "Gernika" abesti solemnea hautatu du aurtengo ekitaldirako, Nemesio Etxaniz euskaltzaleak abestiari jarri zion letra gehituta.

Sebastopoleko dantzariak

Bandarekin batera, Donostiako Sebastopol Dantza eskolako Jaione Albeniz, Aritz Santamaria, Nora Orbegozo eta Itziar Sistiaga dantzariak saioa egingo dute Alfaro parkean, larunbat eguerdian. Laukoteak badaki zer den Andoingo ekitaldian dantza egitea lehendik ere, izan ere, 2019an "Al Alba" (Luis Eduardo Aute) abestia koreografiatu zuten, 2023an, "Maravillas" (Fermin Valencia), eta iaz, berriz, "Len amar lagun giñan etxean" (Joseba Tapia). Jaione Albeniz da Sebastopol dantza eskolako irakaslea, eta bera arduratzen da dantza eta koreografiaren lanketaz.

Bere hitzetan, kultura eta estilo anitzen eragina izaten dute berak sortzen dituen koreografiak. Zerrenda luzea du gogoan Alberdik: "Ekialdeko edo India eta Bollywoodeko erritmoak, "Zetaren Bide"ko herrialdeak (Kazakhstan, Kirgizistan, Azerbaijan, Tajikistan, Turkia, Turkmenistan...), edota, herrialde buhameak (Rajasthan, Egipto, Turkia, Errumania, Hungaria...)"

Andoingo ekitaldira ilusio handiarekin etortzen direla aitortu du Alberdik. "Izugarrizko erronka da guretzat Andoingo Bandak estreinatzen duen abestia koreografiatzea; saiatzen gara gure mugimenduak doinura ondo moldatzen, eta egia esan, emaitza beti izan da polita, entzuleek biziki eskertu izan digute. Bestalde, desberdina ere egiten zaigu ekitaldi horretan saioa burutzea, zelaietan izanik oinetakoekin aritu behar baizara. Baina guztiaren gainetik, hunkigarria da guretzat Andoingo dantza-saioa; errespetu handia eragiten digu frankismo biktimen aurrean dantza egiteak".